Nafarroako Gobierno
Gobernua de Navarra

69E/2019 EBAZPENA, abenduaren 17koa, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emana, "Irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia" izeneko dirulaguntzaren ordainketa onesten duena

ERREFERENTZIA:	**Espedientearen kodea: 0011-1407-2019-000000**
UNITATE KUDEATZAILEA:	Herritarrekiko Harremanetako Departamentua Euskararen sustapena eta plangintza Euskara Sustatzeko Atala Tfnoa.:848 426054 Helbidea: Yanguas eta Miranda 27, 1.a – 31003, Iruña Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

ESPEDIENTEA	
Espediente mota:	Irabazi asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia

Aplikatzeko araudia:

9E/2019 FORU AGINDUAk, otsailaren 19koak, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariak emanak, onetsi zuen "Irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia" izeneko dirulaguntza 2019. urterako.

19E/2019 Ebazpenak, apirilaren 17koak, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emanak, esleitu zituen “Irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia” izeneko dirulaguntzak.

Ondoren, 46E/2019 Ebazpenak, abuztuaren 19koak, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emanak, deialdiaren lehen ordainketa onetsi zuen. Hamaika elkartek aurkeztu zituzten beharreko agiriak, eta lehen ordainketan 99.009,92 euro banatu ziren.

Ondoren, espedientearen kudeaketan aurrera eginez, behin betiko ordainketa egiteko jarraipen lanak egin dira, hau da, Euskarabideko teknikariek egiaztatu dute elkarteek aurkezturiko dokumentazio guztia. Beraz, azken ordainketa egitea egokitzat jotzen da.

Horren guztiaren ondorioz, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 271/2019 Foru Dekretuan ezarritakoaren bidez esleitu dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradun bakoitzari beheko taulan ageri diren zenbatekoak ordaintzea:

Num Exp	NIF	Nombre	Partida Presupuestaria	Importe
0011-1407-2019-000001	G31246911	DONEZTEBEKO EUSKALTEGIA	G/B30002/4819/334100	3.656,05
0011-1407-2019-000002	F31098627	NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA SCI	G/B30002/4819/334100	1.980,49
0011-1407-2019-000004	G31921125	GAREAN ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	3.904,50
0011-1407-2019-000005	G31653017	KARRIKALUZE ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	13.514,33
0011-1407-2019-000006	G31698624	EUSKOKULTUR FUNDAZIOA	G/B30002/4819/334100	979,30

0011-1407-2019-000007	G31824675	TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA	G/B30002/4819/334100	13.318,47
0011-1407-2019-000008	G31724339	HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA	G/B30002/4819/334100	3.917,20
0011-1407-2019-000009	F95222816	EUSKARAZ KOOP E	G/B30002/4819/334100	9.074,84
0011-1407-2019-000010	G31058258	ANFAS	G/B30002/4819/334100	5.484,07
0011-1407-2019-000013	G31426877	EUSKAL KANTUZALEEN ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	1.436,30
0011-1407-2019-000014	G71038855	OLLOKIKO PLATAFORMA	G/B30002/4819/334100	2.020,03
0011-1407-2019-000016	G31722705	EUSKALDUNON BILTOKI ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	14.540,00
0011-1407-2019-000017	G31174667	MAITEA GURE TXOKO ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	416,00
0011-1407-2019-000018	G31311608	ERRIKO TXOKO ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	560,00
0011-1407-2019-000019	G31264153	NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	16.902,33
0011-1407-2019-000020	G71226542	HERRIKO GAZTEAK	G/B30002/4819/334100	1.246,48
0011-1407-2019-000021	G71280325	IDAZLEEKIN SOLASEAN ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	2.975,10
0011-1407-2019-000022	G31250087	ZALDIKO MALDIKO KULTUR ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	2.646,46
0011-1407-2019-000023	G31513443	IRURTZUNGO AIZPEA	G/B30002/4819/334100	7.551,94
0011-1407-2019-000025	G31572654	KARRIKIRI ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	12.208,59
0011-1407-2019-000026	G71087183	BIAK BAT ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	1.564,00
0011-1407-2019-000027	G31831050	DINDAIA FUNDAZIOA	G/B30002/4819/334100	16.972,50
0011-1407-2019-000028	G71319909	TUTERAN JAI	G/B30002/4819/334100	3.276,34
0011-1407-2019-000029	G71201776	ULTZAMA 2013 FUNDAZIOA	G/B30002/4819/334100	2.872,61

2. Irati bortuak elkarteak ez du inolako laguntzarik jasoko, ez baitu inolako ziurtagiririk aurkeztu.

3. Askatzea taulan zerrendatutako onuradunei, bertan zehazten diren kopuruak:

Num Exp	NIF	Nombre	Partida Presupuestaria	Importe
0011-1407-2019-000014	G71038855	OLLOKIKO PLATAFORMA	G/B30002/4819/334100	2.299,97
0011-1407-2019-000017	G31174667	MAITEA GURE TXOKO ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	104,00
0011-1407-2019-000020	G71226542	HERRIKO GAZTEAK	G/B30002/4819/334100	797,52
0011-1407-2019-000028	G71319909	TUTERAN JAI	G/B30002/4819/334100	1.203,66

4. Onuradunei helaraztea ebazpena, eta jakinaraztea ondorengo unitateetan: Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko kontu-hartzailetzan, Idazkaritza Tekniko Orokorrean, Ekonomia aferetarako bulegoan eta Euskarabideko programen bulegoan.

5. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahal dute jurisdikzio-ordena eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hau guztia Nafarroako Gobernuaren aitzinean aldez aurreko errekerimendua egiten ahal dela ukatu gabe, Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan finkaturiko modu eta epeetan.

Iruñean, 2019ko abenduaren 17an

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Mikel Arregi Perez